

28.000.000 euroko aurrekontu proposamena luzatu die udal gobernuak oposizioko taldeei

- **Antolaketa batzordean aurkeztu du proposamena, eta, hauek aztertzeke eta eztabaidatzeko tartea zabaldu du**
- **Udal gobernuaren nahia aurrekontuak urtarrileko ohiko udalbatzan bozkatzea da**

Andoainen, 24-12-18.- Asteazken honetan jaso dute oposizioko taldeek 2025eko udal aurrekontu proposamena. Zehazki, 27.952.145,90 euroko aurrekontua aurkeztu du udal gobernuak. Aurkeztu dena da Andoainek bizi duen egungo errealitatera eta beharretara egokitua izan den aurrekontua. Izan ere, ezin dugu ahaztu krisi egoera anizkoitz batean bizi garela, maila orokorrean hainbat eskubideen erregresio egoeran sartu garela eta jendartearen pobretze orokortu giro batean ere bizi garela.

Horiez jakitun, argi dugu gure norabidea: gure herriaren eraikuntzan jarraitu behar dugu (ez soilik aspektu urbanistikotetan, baita bestelako aspektu batzuetan ere), eta, era berean, gure herritarren beharrei erantzuteko eta euren bizitzak hobetzeko neurriak hartu behar ditugu.

Gure eguneroko beharrei modu komunitarioan egin nahi diogu aurre; hala ulertzen dugu gure eginbeharra: tokiko beharrianak tokiko baliabideekin asetzeko aukerak aztertuz, eta ezin den kasuetan, horretarako modu egokienak bilatuz.

Aurrekontu hauek bide horretan osatu dira, lau ildo edo eremutan banatu ditugularik gure proposamen nagusiak:

- 1. Herritarren bizitzak hobetu**
- 2. Eraldaketa ekosoziala eta elikadura burujabetza**
- 3. Andoain, Herri bizia**
- 4. Gobernantza komunitarioa**

Askotariko proposamenak jaso dira horietako ildo bakoitzean, esan bezala, guztiak andoaindarraren beharrak asetzera bideratzeko pentsatuak direnak.



Halaber, epe ertain-luzera begirakoak diren proiektu estrategikoen inguruko akordioa ere proposatu zaie oposizioko taldeei; hala nola, horien artean daude egungo Kiroldegiaren instalazioak berritzea eta honen handitzea, Udal Liburutegi berria, Udal Zerbitzuen pabilioi berria, Kiroldegiaren instalazio berriak...

Hau guztia, nola?

Udalak hainbat diru-sarrera izango ditu aurrekontuei aurre egiteko:

- Fondo Forala: diru sarreren %46,5
- Tasak eta Zergak: diru sarreren %42,44
- Bestelako dirulaguntzak: %11,05

Halaber, otsaila partean ezagutuko dugu aurtengo aurrekontuaren soberakina zertan geratzen den; bertatik bideratuko dira hainbat inbertsio. Inbertsio estrategikoei begira, mailegu bat eskuratzeko lanean dihardu Udalak; horretarako, hartu-emanetan ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun sailarekin. Aurreikuspena da mailegua urte hasieran eskuratzea.

Urtarrilean, plenora

Behin proposamena aurkeztuta, hau baloratu eta ekarpenak egiteko tartea izango dute oposizioko udal taldeek. Udal gobernuaren asmoa da urtarrileko ohiko udalbatzan bozkatzea proposamena. Denbora honetan eskua luzatua izango du udal gobernuak balizko negoziaketetarako; zabalik dago proposamenak jasotzera, eta adostasuna egongo balitz, baita proposamenak udal aurrekontuetan txertatzeko ere. Bide horretan, ardura eta herriarekiko konpromisoa eskatu dio udal gobernuak oposizioko taldeei.

